

UDALBATZAREN BURUARI

Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udaltzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko uztailaren 9an izan zuen bileran autobus geltokiaren azalera urbanizatzeari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Dagoeneko bi urte eta erdi pasatu dira Egian autobus geltoki berria martxan jarri zenetik. Orduetik, etenik ez dute izan azpiegitura horren azalaren urbanizazioari lotutako kritikek.

Hasieran, auzokoek ulertzen zuten ohiko atzerapen bat zela, hiriak behar zuen geltokia inauguratzeko presak eragindakoa. Alabaina, denborak aurrera egin ahala, utzikeria ikusten da gunean, edo gutxienez, axolagabekeria. Auzokoei eragiten dieten zenbait kontu ere badaude.

Besteak beste, atsekabetuta daude, hasierako proiektuan geltokiaren gunean haur parke bat jartzeko asmoa agertu arren, proiektu hori ez zelako gauzatu. Gune hori 2016ko Europako Kultur Hiriburutzarako behar zela jarri zuten aitzakia moduan, baina urte eta erdi pasatu da Kultur Hiriburutza amaitu zenetik, eta ez dago parkeari buruzko berririk.

Gune horretatik pasatzen den bizikleta bidea inauguratu ostean, ibilbidea zuzentzeko aukera aztertzen ari zela ere esan zuen Udal Gobernuak. Bide horri lotuta ere kexa ugari jaso dira, bihurtunetsua baita, eta bihurtunetako batzuk itxiak direnez, istripuak gertatu eta atsekaberen bat izateko arriskua baitago; gainera, oinezkoen ondotik doa bidea.

Auzokoek aipatzen duten utzikeria sentsazioa, antza denez, autobus geltokia egiteaz arduratu den ABEEarekin dauden zenbait desadostasunek eragindakoa da - hala aipatu izan du noizbait Udal Taldeak-, baina kontua luzatzen ari da. Hala, "Brandeburgoko Atea" jarrita egon arren, zerbitzurik eman gabe jarraitzen du, hesituta baitago; obretan utzitako materiala oraindik han dago; goiko eskailerek ez dute Tabakalera-Egiako gunearekin konektatzen; eta utzikeria sentsazio handia dago gunean.

Kontu horiei buruz galdetutakoan, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak jolaserako gunea ez dela egingo azkenean esan zuen azken batzordean, nahiz eta hasierako proiektuan ageri. Begi onez ikusten du, berriz, bizikleta bidea aldatzea,

nahiz eta gaur egun aukera ekonomikorik ez eduki horretarako.

Beste kontu batzuek arazoak eragiten dituzte oraindik geltokiko obrez arduratzen den ABEEarekin, esate baterako, "Brandenburgoko Atea" gunek, haren egokitzapenak eta Tabakalera-Egia guneko oinezkoentzako loturak. Zinegotzi ordezkariaren beraren esanetan, Udalak "zerbait gehiago egin behar du".

Puntu horri dagokionez, obrez arduratzen den ABEEaren borondate falta ikusita, azaldu zuen Proiektu eta Obren Sailak egin dituela betearazpen subsidiarioa gauzatu ahal izateko Udal Administrazioak aurretik egin beharreko lanak; alabaina, etxe honetako Finantza Zuzendaritzak uste du urbanizazio obrak neurri eta jarduera sorta baten barruan egin behar direla, eta horiek oraindik ebatzi gabe daude.

Udaleko sailen arteko irizpide ezberdinek ezin dute arazoaren mamia alboratu: hiri erdiguneko gune baten urbanizazioak konponbiderik gabe jarraitzen du, eta utzikeria nabarmena erakusten du duela bi urte eta erditik. Udalak baditu egoera hori iraultzeko tresna eta mekanismoak, eta erabakitasun eta ekintza politikoei egoera hori konpontzeko balio behar dute.

Udal taldearen bultzada politiko baten beharra dagoela ikusita, Talde Popularrak **MOZIO** hau aurkeztu du:

1.- Donostiako Udaltzako alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die ahalik eta azkarren ekiteko autobus geltokiaren azalera urbanizatzeko falta diren lanen betearazpen subsidiarioari, obra horien ardura duen ABEEaren kontura, duela bi urte baino gehiago egin behar baitziren lanak.

2.- Donostiako Udaltzako alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die, aurretik aurrekontu-kontsignazioa egin ostean, gaur egun gune horretan dagoen bizikleta bideari egin beharreko aldaketak diseinatzeko eta aurkezteko talde politikoei, bide horren bihurguneak zuzendu eta bideko segurtasuna hobetu ahal izateko.

Donostian, 2018ko uztailaren 13an.

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea.